

2. HE

ENTZUMENA

■ 2. ariketa: Lotu hitza dagokion testu zatiarekin.

Mexikon txoriei buruz egin duten ikerketa baten berri entzungo duzu jarraian.

- Entzuten hasi aurretik 2 min. daukazu esaldiak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min. duzu ariketa amaitzeko.

Hasi erantzuten nahi duzunean.

Lotu hitz bakoitza dagokion testu-zatiarekin. Adib.:

0. Txonta	K
-----------	---

1. Cholula	A. Ikerketan parte hartu du, Mexikoko Universidad de las Américas Unibertsitatearekin batera.
2. Neiker-Tecnalia	B. Tamaina txikiko hegazti-espezia.
3. Poluzio akustikoa	C. Bertan ikertzaileek 38 hegazti-espezieren agerraldi-maiztasuna neurtu zuten.
4. Ekuazioa	D. Hemen ez bezala, Mexikoko hirietan aurkitu ahal den hegazti-espezia.
5. Birigarro	E. Gune metropolitarra, non egindako lanen arabera, gune berde zaratatsuenetan hegazti-espezieen aberastasuna txikiagoa baita.
6. Txolarre	F. Zarata handia berdin espezie gutxiago.
7. Parkeak, plazak, hilerriak...	G. Modu negatiboan eragiten dio txoriek hirietan duten presentziari.
8. Paseriforme	H. Zarataro ondo egokitzen den hegazti lotsagabea.

Idatzi dagokion hizkia ondoko laukietan:

Hitzak	1	2	3	4	5	6	7	8
Testu zatiak								

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN